

# Udaletako Hizkuntza Politikarako Proposamena



2

AHOLKU BILDUMA

© Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioa  
Argitaratzailea: Eusko Jauriaritza. Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Wellington Dukea, 2 - Gasteiz  
Diseinua: Sormen Creativos  
Inprimatzailea: Estudios Gráficos Zure, S.A.  
Lege gordailua: BI-1332-90  
ISBN: 84-7542-981-5  
2.000 ale  
L.G.: BI-1243-91  
Argitaratze data: 1991ko maiatza

**EUSKO JAURLARITZA  
EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA**

**AURKIBIDEA**

**Udaletako Hizkuntza  
Politikarako Proposamena**

- 1.1. Hengritararen hizkuntza politikak
- 1.2. Funtzionario hizkuntza normalizazioa
- 1.3. Gerturaren erabilaketa

**2. UDALEN FODERA SOZIOLOGIA**

- 2.1. Udalerriaren 20000 biztanleko eremuak
- 2.2. Eremuaren 20000 biztanleko eremuak
- 2.3. Udalerriaren

**3. FISKARA UDALTAN**

- 3.1. Fiskalaren erabilaketa
- 3.1.1. Fiskalaren erabilaketa
- 3.1.2. Fiskalaren erabilaketa
- 3.1.3. Fiskalaren erabilaketa

**4. FISKARA UDALTAN**

- 4.1. Fiskalaren erabilaketa
- 4.1.1. Fiskalaren erabilaketa

Gasteiz, 1991ko maiatza

EUSKO JAURLARITZA  
EUSKARAREN AHOIKU BATZORDEA

AGINDUA

# Udaletako Hizkuntza Politikarako Proposamena

Oharra: Honako proposamen hau 1991ko martxoaren 1ean Euskararen Aholku Batzordeak egindako Osoko Bilkuran onartutakoa da.

## SARRERA

Euskararen gaitasun bikoiztasunaren eta bereziki udal erakundeetan erabiltzeko gaitasunaren garrantzia nabarmenki azpimarratu da. Euskararen erabilera eta bereziki udal erakundeetan erabiltzeko gaitasunaren garrantzia nabarmenki azpimarratu da. Euskararen erabilera eta bereziki udal erakundeetan erabiltzeko gaitasunaren garrantzia nabarmenki azpimarratu da.

Euskararen erabilera eta bereziki udal erakundeetan erabiltzeko gaitasunaren garrantzia nabarmenki azpimarratu da. Euskararen erabilera eta bereziki udal erakundeetan erabiltzeko gaitasunaren garrantzia nabarmenki azpimarratu da.

## AURKIBIDEA

### SARRERA

1. HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK .....	7
2. OINARRIZKO EGINKIZUNAK .....	9
2.1. Herrigintzaren hizkuntza ondorioak	
2.2. Gizartearen hizkuntza normalkuntza	
2.3. Gestioaren antolaketa	
3. UDALEN EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA .....	12
3.1. Udal haundiak, 20.000 biztanletik gorakoak	
3.2. Erdi mailakoak, 5.000tik 20.000ra bitartekoak	
3.3. Udal txikiak	
4. EUSKARA UDALETAN .....	13
4.1. Euskara udaletxean	
4.1.1. Euskara zerbitzu hizkuntza	
4.1.2. Euskara lan hizkuntza	
4.1.3. Euskararen aldeko jarrera	
4.2. Euskara udalerrian	
4.2.1. Euskararen aldeko ekintzak	
5. UDALAREN ANTOLAKETA .....	18
6. GOMENDIO GISA .....	19

## SARRERA

Euskararen gaurko ofizialtasunera iritsi baino lehen, mendeetan zehar euskaldunek gisa ezberdinetako hizkuntza trataerak hartu dituzte herri erakundeen aldetik, eta orobat ezberdin jokatu dute bearauekiko harremanetan. Gorabehera eta aldarte guztiokin ere, euskara mintzatuari betidanik utzi zaio leku zabala, zenbait une gogorretan ezik, herritarren eta administrazioaren —batez ere tokiko administrazioaren— artean.

Euskara idatzia, ostera, nabariki albo batera geratu zen, administrazio modernoaren funtzio eta betekizun berrietan batipat, eta ondorioz, hizkuntza mintzatuak ere garai bateko erabilpen neurri hura galdu egin zuen administrazioaren zereginetan.

Euskararen historia horretan, erakundeetako funtzionarien hizkuntza jarrera ere, esanahi handikoa gertatu da herritarrek beren eguneroko ihardunean nahiz administrazioarekiko harremanetan hizkuntza ohiturak leialki finkatzeko, edo bortxaz aldatu behar izateko.

Horretaz jabetuta, euskaldungoak beti lortu nahi izan du, euskara mintzatu eta idatzientzat, funtsean eskubidez zegokion administrazio ofizialtasuna, azkenik 1936ko estatutuan legezko eskubide aitorten hori egin zitzaion arte. Asmo berarekin bideratu ditu geroko pausoak 1979ko estatutuak ere.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 3/1979 abenduak 18ko Lege Organikoak bere 6. artikuluan euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialaren maila izango duela dio, gaztelaniarekin batera. Eta estatutuak jasotakoaren ildotik, azaroaren 24eko 10/1982 Oinarrizko Legeak, Euskararen Erabilpena Arauzkottzekoak, herritarrak administrazioa, ahoz nahiz idatziz, edozein hizkuntza ofizialetan jo dezakeela adierazten du. Honek, jakina, bi hizkuntzetan erantzuteko gai izango den administrazio egitura eskatzen du. Eta guzti hau gizarte integratu baten lorpenerako, legearen atarikoan esaten den bezala.

Euskararen 10/1982 Oinarrizko Legea garatuz, azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuak, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Herri-

Administrazioetan Euskararen erabilera eta normalizazioa arautzen duenak euskara, herritarren zerbitzu hizkuntza izateaz gain, herri administrazioan bertako lan hizkuntza izateko bidea ematen du.

Uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, beste pauso bat ematen du: aurrerantzean Euskal Autonomia Elkarteko herri administrazioan lanpostuak hizkuntza eskakizuna bertan izango du. Derrigortasunari buruzko erizpideak hizkuntza normalizatzari buruzko legearen V. idazpuruan jasotzen dira.

Urriaren 17ko 224/1989 Dekretuak hizkuntza eskakizunak zeintzuk izango diren, ezarpen prozedurak, derrigortasun erizpideak eta abar zehazten ditu, ondorengo bost urteetako epealdian bete daitezzen. Lanpostu bakoitzak betetzen dituen eginkizunak, eta hauek bideratzeko hizkuntza gaitasunaren beharrak gogoan hartuz, lau hizkuntza eskakizun mailatan biltzen dira lanpostuak, ahozko nahiz idatzizko ulermenaren eta erabileraren arabera.

Aurreko dekretua osatuz, urriaren 9ko 264/1990 Dekretuak lanpostuei dagokien hizkuntza eskakizunen derrigortasuna zehazteko erizpideak finkatzen ditu.

Euskararen Aholku Batzordearen eritziz, bestalde, egungo lege eta araubidez gain, benetan garrantzitsua da hasi berria den legealdian Eusko Legebiltzarrak egin behar duen udal legean bi hizkuntza ofizialei buruzko trataera zehaztuko duen atal berezi bat eskaintzea, udaletako hizkuntza politikaren mesedetan.

Lege eta arau hauek gogoan hartuz eta udaletan hizkuntza normalizatzaren aldeko lanak duen garrantziaz oharturik, Euskararen Aholku Batzordeak, abenduaren 15eko 370/1987 Dekretuak 5. atalean dioenari jarraituz, honako adierazpen hau egiten du, udalaren eremuan, agintedun, langile, nahiz herritar bezala, hizkuntza normalizatzarekin zer ikusia dutenei lagungarri dakien.

# 1. HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK

## 1.1. Euskararen aldeko politika herrigintzan errotzen da.

Herria osatzen duten pertsonak, osatuz eta garatuz doazen heinean, herria bera garatzen dute eguneroko ihardueran, behin ere amaitzen ez den herrigintzan. Herriaren aldeko lanean diharduten agintari zein herritar soilek herrigintza mamitzen dute bakoitzak bere eginkizunaren esparrutik.

Alde batetik, eguneroko lanean hizkuntza beharrezkoa da, harremanetarako, gauzak aurrera ateratzeko, norberari hizkuntza ezinbestekoa zaiolako. Bestetik, ez da ahaztu behar euskara Euskal Herriko hizkuntza dela, bere izaeraren ezaugarri eta adierazle dela, euskal nortasuna euskararen baitan mamitzen dela. Herrigintza oro hizkuntzaz mamitzen denez, Euskal Herrian burutu beharreko herrigintzak berekin behar du euskara.

## 1.2. Euskararen normalkuntzak herriarena dakar.

Bere hizkuntza sendotuz eta normalduz doan neurrian, herri osatu eta aberatsagoa izango da aurrerantzean. Herri arazoa da hizkuntzarena. Euskara berekin duela egin behar du aurrera Euskal Herriak.

## 1.3. Agintaritza osoak hartu behar du bere gain euskararen aldeko politika.

Herrigintza herritar guztien egitekoa da, bakoitzak bere gain hartu behar du eginbide honen ardura. Erantzukizun hau, ordea, areagoa da agintean daudenen baitan. Euskararen normalkuntza eta herriarena bereiz ezinezkoak direnez, agintari guztiek, agintaritza osoak, erantzukizun berezia dute euskararen aldeko politikan.

Udaletako langileei hizkuntza eskakizuna ezartzea, arauak errespetaraztea beharrezkoa da. Baina guzti hau garatu behar duen politikaria elebiduna ez balitz edo euskalduntzeko ahaleginik egingo ez balu, hipokresia izugarria izango litzateke eta normalkuntzaren aldeko ahaleginak ez luke sinesgarritasunik izango.



#### 1.4. Hizkuntza gogoan hartuko da arlo guztietan.

Ez dago hizkuntzarik gabeko udal ekintzarik. Hizkuntzaz, batean ala bestean, baina beti hizkuntzaren batetan, bideratzen dira ekintzak eta plangintzak.

Hizkuntza gogoan hartzeaz gain, arreta bereziz zaindu behar da euskara mintzatua administrazioan, herri hizkera eta hizkuntza mintzatuaren arteko lotura landuz.

#### 1.5. Euskararen egoerak bereziki bere aldeko diskriminazio positiboak eskatzen ditu.

Bistan da euskara euskal gizartean bertan gutxietsia izan dela eta gaur egun ere horrela dela sarritan. Euskararen kaltetan ematen den beste hizkuntzen eragina indargabetzeko euskarak aldeko ekintzak eskatzen ditu, bere geroa ziurtaraziko duen hizkuntzen arteko oreka lor dadin.

#### 1.6. Legea bete egin behar da.

Euskararen normalkuntza ez da borondate kontua bakarrik, hor daude legeak eta araubideak, eta, gainontzeko arloetan bezala, bete egin behar dira.

Funtsean legea garatzeko lanabesa baino ez luke izan nahi txosten honek.

#### 1.7. Euskararen aldeko politika euskaldungoaren araberakoa izango da.

Ezinbestekoa bezain garrantzizkoa da euskararen aldeko politika euskaldungoaren araberakoa izatea, honek berekin dituen ondorio guztiek: euskal gizartearen tokian tokiko indarra kontuan izatea, euskal gizartearen nolakotasunean ere arreta jartzea, biziki jarrai ere, zenbaketotasun hutsera mugatu gabe, euskal gizarte guneak (euskaraz bizi diren lagunarteak, euskaraz gauzatzen diren harremanak eta fun-

tzioak) saritzea eta indartzea, eta horietan oinarrituta jotzea elkarte osoa euskalduntzera...

Hemen labur-labur aipatutako oinarrizko erizpideen arabera landutako udalgintzak erabaki sendoak eskatzen ditu ondoren ikusiko den bezala.

## 2. OINARRIZKO EGINKIZUNAK

### 2.1. Herrigintzaren hizkuntza ondorioak

Euskara herrigintzan errotzen baldin bada eta herrigintza Euskal Herrian euskararik gabe pentsa ezinezkoa baldin bada, honako ondorioetara iritsi beharko du honetan ardura duenak:

Udala aurrera ateratzeko pausoak ematerakoan, halako egitasmo politikoa zehazten dute alderdi politikoez nolako udala nahi duten erabakiz. Egitasmo horretan euskarak zer leku izango duen, zer trataera emango zaion, erabilera nondik norakoa izango den erabaki behar du, ez aparteko atal bezala, egitasmo osoan txertatua baizik. Udalgintzaren helburuak hizkuntza barne dela bilduko ditu.

Egitasmoak mamitu ahal izateko, alderdi bakoitzak bere hautagaiak izendatzen ditu, egokien jotzen dituen pertsonak aukeratzen. Udal esparru bakoitzerako kide egokienak izendatuko ditu, baina beti ere hizkuntza erizpideak gogoan hartuz. Zenbait udaletan alkateak eta zinegotziak euskara ez menderatzeak ez du hainbesteko garrantzia izango behar bada, baina beste zenbaitetan euskalduna izatea beharrezkoa izango da. Gai hau aintzat hartu eta hautagaiak izendatzekoan gogoan hartuz erabakitzea da garrantzizkoa.

Beharrezkoa da katea elebidunak dauden udaletan, bi hizkuntzetan diharduten esparruetan, alkate eta zinegotziak elebidunak izatea.

Euskararen normalkuntzaren ikuspegitik ezinbestekoa da, egungo lege eta araubideetatik abiatutako udaletan aurrera emandako pausoak gerora ere ziurtatzea, euskararen aldeko politika landu duten gu-

neetan jarraipena ematea. Zinegotzien hizkuntza gaitasunik ezak ez luke, inola ere ez, udal batetako hizkuntza normalkuntza programa oztopatu behar.

## 2.2. Gizartearen hizkuntza normalkuntza

Euskararen aldeko politika normalkuntzaren eskakizunari jarraituz landuko da. Udalerrri euskaldunagoetan bere iharduna, barnekoa nahiz kanpora begira zuzendua, euskaraz garatuko da gehienetan. Hain euskaldunak ez direnetan, aldiz, euskararen erabilera herriko egoerari egokitzuz erabakiko da.

Euskararen aldeko politika ez da jakineko zinegotziaren esku bakarrik utz daitekeen kontua, are gutxiago euskara zerbitzu edo itzultzailearen bizkar geratuko dena. Agintari bakoitza da bere esparruan, eta agintaritza osoa berari dagokion eremuan, hizkuntza normalkuntzaren erantzule. Hirigintzaren arduradunak hizkuntza gogoan hartuko du, ongizate alorreko zinegotziak bezalaxe, esaterako. Zinegotzi bakoitzak bere lan eremuan hizkuntzaren ardura bere gain hartzerakoan, udalaren politika eta programa orokorra gogoan hartuz jokatuko du eta dagokion esparruan egitasmo nagusia garatuko. Udalbatzak onartutako egitasmo politikari erantzungo dio guztien artean landu beharreko hizkuntza politikak.

## 2.3. Gestioaren antolaketa

Hizkuntzaren trataera arlo guztietan gogoan hartu beharrekoa denez, udalaren iharduera hizkuntzak eskatzen duen erantzuna ere gestio antolaketan xertatuko da. Ekintza eta plangintza bakoitzak berekin duen aurrekontuetan hizkuntza trataeraren kostua bertan sartzea gomendatzen da, horrela udal iharduera normaldu dadin.

Hizkuntza dela eta, gestioaren antolaketa ez da aurrekontuetara bakarrik mugatzen. Hizkuntza trataera bera antolatu behar da. Ekintza bakoitzaren sorreran bertan sartu behar da hizkuntza erizpidea.

Hizkuntza erizpide hori udalaren eginkizun guztietan nola ezarri eta ondoren nola bete beharko litzatekeenaz zuzen zuzenean arduratuko

dena, udalaren hizkuntza arduraduna izan beharko da; ez bere kabuz finkatutako plangintzaz, arlo bakoitzeko kargu politiko eta teknikariek elkarlanean tajututako egitasmoaz baizik. Hau da, hirigintza arloan udal arkitektuak edo aparejariak betetzen duen diseinu eta lan teknikoaren pareko zeregina da hizkuntzaren arduradunak edo teknikariak egingo lukeena.

Aldi berean, udalaren sail edo esparru ezberdinetarako hizkuntza traeta eta arlo bakoitzean normalizazioaren ildotik bete beharrekoa finkatzeaz ari garenez, esparru horietako teknikari guztiak, derrigorrez inplikatu behar dira zeregin honetan.

Udalaren hizkuntza politikaren ildotik, normalizaziorako plangintza, kultur etxeko arduradunak (edo kultur dinamizatazaileak), udal kiroldegiko zuzendariak (edo kirolgintzaren arduradunak), Hirigintza zerbitzuburuak, turismo teknikariak, gizarte laguntzaileak etabarrek, Euskara Zerbitzuko arduradunarekin (edo hizkuntza arduradunarekin) batera antolatu eta planifikatuz osatua izan behar du.

Plangintza horrek ondoren, kargu politikoen baiezkua eta konprometua jaso behar du eta Udalbatzak bere egiten duenean, gauzatzeari ekin behar zaio. Eguneroko jardunean, batipat udal teknikarien ardura izango da beste ardura teknikoaren baitan hizkuntzarekikoa ere nahiz eta Euskara Zerbitzu arduradunaren erizpidea kontutan behar izan. Kargu politikoez, ordea, hurbiletik jarraituz eta beraiei dagokiena bezela, egindako plangintza euren denaren kontzientziaz egingo du egitekotan plangintzak aurrera.

Ardura tekniko eta ardura politiko bat eginik behar ditu euskarak gauzak tajuz egiteko.

Lehenago aipatu bezela, oinarrizko eginkizunak udal guztietan aintzat hartu eta bete beharrekoak diren arren, neurri eta era desberdinean mamituko dira, egoera soziolinguistikoaren arabera. On da, beraz, Euskal Autonomi Elkartearen nolako udalak dauden gainbegiratzeari.

### 3. UDALEN EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak 1986garren urteko errol-daren araberako datuekin argitaratutako Soziolinguistikazko Mapan ikus daitekeenez, honako udal banaketa hau egin daiteke:

#### 3.1. Udal handiak, 20.000 biztanletik gorakoak

Euskal Autonomi Elkarteko biztanlegoaren %67,03 osatzen dute 20.000 biztanletik gorako 18 udaletan bizi direnek. Bilbo eta bere inguruko udal nagusien euskaldungoa ez da %10era iristen. Euskal Autonomi Elkarteko euskaldungoaren %36,34 bizi da era honetako udaletan, 1986ko erroldaren arabera, 192.000 euskaldun. Durango eta Eibar dira herri euskaldunenak 20.000tik gorakoetan. Gasteizen euskaldunak %6 baino ez dira.

#### 3.2. Erdi mailakoak, 5.000tik 20.000ra bitartekoak

Denera, 47 dira neurri hauetako udalak Euskal Autonomi Elkartean. Euskaldungoaren %43,60 bizi da, hots, 230.900 biztanle euskaldun denera. Udalaren neurriak eta bertako hizkuntza egoerak euskararen aldeko politika egokia zehazteko bidea ematen du.

#### 3.3. Udal txikiak

Bi eratakoak dira. Mapak erakusten duenez, multzo honetako udal batzuk, Araban eta Enkarterrietan daudenak, ia erabat erdaldunak dira. Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, euskaldunenak.

Guztira 171 udal dira Euskal Autonomi Elkartean eta euskaldungoaren %20,04 biltzen dute, 106.000 euskaldun. 68 udaletan euskaldunak %80tik gora dira. 57 udaletan %20tik behera.

Hizkuntzaren ikuspegitik garrantzitsua da udalaren izaera zein bailararena ere gogoan hartzea, batez ere udala bailara buru denean txikiagoetan duen eraginagatik.

Ondoren esango direnak udal egoera desberdina gogoan hartuz irakurri behar dira. Udal bakoitzari legokioke, oinarrizko erizpideak egokituz, bere esparruari erantzutea.

### 3.4. Mankomunitateak

Udalen bizitzan eta zereginean gero eta garrantzia haundiagoa izango dute mankomunitateek. Udalaren mugak gainditzen dituzten eginkizunak bideratzeko nahiz baliapideak hobeto erabiltzeko, mankomunitateetan elkartuz doaz udalak. Gainontzeko zereginekin batera, udaletako hizkuntza politika euren gain hartu behar dute euskalgintzaren ikuspegitik zerbitzu eta erantzun amankomunak sustatuz.

Udal txikietan euskararen normalkuntzak behar dituen zerbitzuak mantentzeko baliapiderik egon ohi ez denez, euskara zerbitzuaren bailara mailako antolaketaren beharra ikusten da udal mailan ezinezkoak zaizkien baliapideak eskura izan ditzaten.

## 4. EUSKARA UDALETAN

Euskal Autonomi Elkartean dauden udalak gogoan hartuz, bistan da tokian tokiko premiak desberdinak izan daitezkeela eta eman beharreko erantzuna bertara egokitua behar dela. Udalaz hitz egiterakoan, bestalde, gogoan hartzen dira bai udaletxeak eta bai udalerriak. Etxe barruko iharduera, alde batetik, eta udalerrian kokatutako gizarteari begira zuzenean egiten dena, bestetik.

### 4.1. Euskara udaletxean

Adierazpen honen sarreran aipatutako lege eta dekretuek erakusten dute ibili beharreko bidea. Araubideari jarraituz, lanpostuei hizkuntza eskakizuna egokitu behar zaie, derrigortasunak ezarri, epeak finkatu eta langileen euskalduntze nahiz alfabetatzeari ekin plangintza egoki baten bidez. Guzti hau arautzen duen 224/1989 Dekretuak herri administrazio bakoitzean hizkuntza normalkuntzarako bidea burutzeko

administrazio atal eta katea elebidunak sortu eta finkatuko direla dio 12.1 atalean.

#### 4.1.1. Euskara zerbitzu hizkuntza

Euskararen 10/1982 Oinarrizko Legeak aitortzen duen ofizialtasunaren ondorioz, Administrazioekiko harremanetan euskara erabili ahal izango da. Herritarrak gogoan hartuz euskararen erabilera ziurtatuko da, eta herritarren eskariz emandako hizkuntza erantzuna, herritarren zerbitzuan erabilitako hizkuntzari deituko zaio zerbitzu hizkuntza.

Udalak bi jarrera erakus ditzake: euskaraz hurbildutako herritarrari euskaraz erantzutea, hots, euskara eskatu zain egotea; edota herritarrei, euskaldunak direnean, euskaraz hitz egin eta, ahal denetan, euskaraz jarrai dezaten animatu eta bultzatzea. Hizkuntza normalkuntzaren ikuspegitik azken jarrera hobea da.

#### 4.1.2. Euskara lan hizkuntza

Udaletxeko barne ihardueran, eguneroko zereginean erabilitako hizkuntzari deitzen zaio lan hizkuntza.

Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuak euskara lan hizkuntza izan daitekeen aukera aipatzen du eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak, berriz, herri administrazio elebidunaren beharra garbi uzten. Eguneroko lanean atal eta katea elebidunek zer hizkuntzatan lan egingo duten, gaztelaniaz ala euskaraz arituko diren, planteatu egin behar du udalak. Laneko hizkuntza erabilera arautzea beharrezkoa da eta udalaren esku dago, araubideak eskaintzen dion babesaz baliatuz.

#### 4.1.3. Euskararen aldeko jarrera

Udaletxeko barne ihardueran arreta berezia eskaini beharko zaio euskararen aldeko jarrerari. Udal batzutan lanpostuko hizkuntza eskakizunak derrigortu egin ditu zenbait langile euskara ikastera. Arreta be-

rezia jarriko zaio ikastera jotzen duten langileen jarrerari, gogo txarrez ez baina euskara gogoz ikas dezaten. Beharrezkoa da alkate eta zinegotziek bertatik jarraitzen dutela erakustea, euskara ikasteko ahalegina baloratzea eta, ahal denetan, ikasten duen hori erabiltzeko egokiera eskaintzea.

Esan beharra dago udaletxe barruko euskararen ardura ez dela derrihortutako lanpostutako langileena bakarrik. Guztien onarpena beharrezko zaio etxe barruko normalkuntza bidean dagoen euskarari. Euskararen aldeko politikaren erantzukizuna udalbatza osoarena den bezala, langile guztien erantzun egokia eskatzen du udaletxeko hizkuntza trataerak.

#### 4.2. Euskara udalerrian

Udaletxeak udalgintzaren eragile den neurri eta era berean behar du euskararen sustatzaile.

Udalaren eragina bertako hizkuntza egoera gogoan hartuz bideratuko da. Egoera soziolinguistikoa, irakaskuntza elebidunaren indarra, euskalgintzaren alde herrian sortzen diren inizatibak gogoan hartuko dira. Gaur egun euskararen kaltetan ematen den desorekak hizkuntzaren normalkuntzaren aldeko erantzuna eskatzen du. Hauxe da abiapuntua.

Hizkuntzaren normalkuntzan ahaleginik handienak eskolan jarri badira ere, ez da ahaztu behar kanpoko giroaren garrantzia erabatekoa dela normalkuntza honetan, "kalea" faktorea, hain zuzen ere. Gazteen interesguneak eskolaz kanpoko hainbat ekintzetan gauzatzen dira: kontserbatorioak, kiroldegietako ikastaroak, aisi aldirako inizatibak eta abar.

Zerbitzu hauetako asko udalaren baitan kokatuak daudenez bidezkoa da, eskolako zereginaren osagarri diren arlo hauetan, udalak eskolako hizkuntza politika bera jarraitzea eta hizkuntza normalkuntzaren aldeko erantzun zuzena ematea.

Hizkuntzaren aldeko arreta bereziz jokatuko dute udalek zein aldundiek monitoreak eta talde arduradunak, ahal den neurrian, euskaldu-



nak kontratatuz eta taldeak osatzerakoan hizkuntza erizpideak zainduz.

Aipatzekoa da kultur etxeak dauden herrietan hauetako batzuk egiten duten legami lana eta zenbaitetan erakusten ari diren arreta berezia. Udaletako hizkuntza politikak oso gogoan hartu behar ditu normal-kuntzaren aldeko lanean jarrai dezaten.

#### 4.2.1. Euskararen aldeko ekintzak

Udalak, aurreko puntuan esandakoaren ildotik, euskara indartzeko ekintzak eragin ditzake. Batzutan herritarrak euskara ikas dezaten animatuko ditu; bestetan, ikasten ari direnak gogoan hartuz, eta ikasketaren osagarri bezala, beste zenbait ekintza bultzatzea. Benetan aintzat hartzekoa da euskararen aldeko lanean diharduten elkarteek izan dezaketen eragina, eman dezaketen jokia. Sarritan udalak baino ekimen eta ahalbide gehiago izan ohi dute euskalgintzaren bidetik aurrerapausoak emateko. Hona hemen, adibide gisa, eman daitezkeen ekintzetako batzuk:

- Haurrak euskarazko ikastaroetan matrikulatzera bultzatzea.
- Eskola orduz kanpo euskarazko ekintzak bultzatzea, asteburu eta oporretan: ibilaldi, jaialdi, uda ikastaro, kanpaldi...
- Euskara dela eta, eskoletako irakasleekin harremanak zaintzea.
- Idaz sariketak eskolekin bat eginez antolatzea.
- Herriko liburutegia (dagoenean) ikasleen hizkuntza premietara egokitzea.
- Gurasoak euskalduntzeko bideak erraztea.
- Euskaldun zaharrak eskolatzera animatzea.
- Euskarari mesedegarri izango zaizkion eskolarteko harremanak sustatzea.
- Euskal giroko eskola umeen jaialdiak babestea.
- Txotxongilo, haur jolas eta antzekoak bultzatzea.
- Euskaltegiaren bidez helduak euskaldundu eta alfabetatzea.

- Udalerrri mailako aldizkari, komunikabide, eta abar sustatzea.
- Euskarazko iragarki, errotulu eta ageriko erabilera indartzea.
- Herritarren ohizko harremanetarako idatzizko ohar, deialdi, idazki eta abar prestatzen laguntzea (elkarte, denda, jatetxe eta abarretan).
- Haurrentzako euskal izenak aukeratzen laguntzea, gurasoen esku izendegiak ipiniz.
- Udalaren esku dauden garraioetan euskara erabiltzea.
- Bake epaitegietan, ahal den neurrian, euskara bultzatzea.
- Alkatearen ardurapean egiten diren ezkontzetan udaleko hizkuntza politikaren arabera jokatzeko. Besteren ardurapean egiten direnetan, bere esku egon daitezkeen baliapideekin laguntzea.

Benetan interesgarritzat jotzen da udalerrriaren eremuan herriko euskararen izaera, egoera eta kokagunearekin zer ikusia izan dezaketen ikerketak sustatzea, beti ere eginbide horretan zer esan zuzena izan dezaketen erakundeekin elkarlana zainduz.

Udalak euskararen aldeko ekintzak antolatu edo bultzatu ditzake, xede eta jomuga euskara bera duten ekintzak. Beste zenbaitetan antolatutakoak euskararekin zer ikusi zuzena ez dutenetan, euskararen traetaera planteatzea eta eragitea eskatzen du hizkuntza normalkuntzak. Zenbaitetan udalak zuzenean bere ardurapean antolatutakoak izan ohi dira; bestetan dirulaguntza bidez sustatuak. Udalak dirulaguntzak banatzerakoan hizkuntzari, euskarari kasu honetan, aitortuko zaion lekua ere gogoan hartu beharko luke. Besteak beste, honelako pausoak eman daitezke:

- Hizkuntza erabilera gutxienezkoa behintzat ziurtatu: egitarau, iragarki, aurkezpen, bozgoragailu eta abarretan herriko hizkuntza egoerari dagokion erabilera ziurtatuz.
- Udalaren instalazioak erabiltzerakoan hizkuntza baldintzak ipini.
- Hala behar izanez gero, beste enpresaren bati eskainitako zerbituetan hizkuntza baldintzak ezarri.
- Langabetuentzat antolatutako saioetan hizkuntza ikuspegia gogoan hartu.

- Jolas eta aisi aldirako monitore, eragile eta gidariak kontratatzerakoan elebidunak kontratatu.
- Gazteentzat antolatutako ekintzetan: ibilaldi, mendi irteera, jaialdi, kontzertu, antzerki eta abarretan, eskolak dagoeneko duen eragina ikusiz, euskararen erabilera ziurtarazi.

Labur esanda, eginkizun guzti horien aurrean plangintza behar da euskararen aldeko ekintzak eragiteko eta ohizko ekintzetan euskarari trataera egokia emateko.

Euskararen aldeko ekintzak ezinbestekoak dira oraingoz. Ekintzak, ordea, ez dira berez helburu, bitarteko baizik.

## 5. UDALAREN ANTOLAKETA

Euskarari erantzungo dion egitasmo honen ondorioz, aurkeztutako eta hautatutako kargudunak lanean jartzea bada zerbait, baina ez da aski. Antolaketa egokia behar da hizkuntzaren normalkuntza egokiro bideratzeko.

Udaletan hizkuntza batetik bestera lanak itzultzeko zerbitzuaren premia nabaria da. Batzutan udal langileren batek itzultzen ditu, bestetan kanpoko beste zerbitzu baten esku uzten dira. Itzulpen lana beharrezkoa da bai, baina ez da aski euskararen normalkuntza ziurtatzeko. Are gehiago, itzulpengintzaren erabilera desegokiak oztopatu egin dezake, zuhur jokatzan ez bada, euskara itzulpenaren morroitzapean ipiniz. Horregatik da garrantzitsua euskara zerbitzu hizkuntza izango den kasuetan laneko hizkuntza ere izatea.

Hizkuntza normalkuntzaren ihardueraren baitan kokatu behar den itzulpen lanak urte luzetxotan iraungo du administrazioan:

- orain, lanik gehienak gazteleraz egiten direlako eta, ondorioz, euskaratu behar izaten direlako
- gerora, piskanaka lanak euskaraz egiten hasten diren langileei ezin izango zaielako, gainera, haiek erdaratzeko erantzukizuna ere bizkarreratu

Dokumentuaren sorreran bertan gogoan hartu behar da hizkuntza trataera, lehen momentutik aurrakusi itzulpenaren zeregina. Itzulpena txukuna izan dadin, itzultzaileak gaia ezagutu egin behar du, itzultzeko lana garaiz, eta ez azken orduan, eman behar zaio itzultzaileari,

itzulpen egokia ziurtaraziko duten prozedurak finkatu behar dira. Udalak itzulpengintzaren ardura bere gain hartu behar du, gestio bide egokiak bermatuz. Euskararen normalkuntzaz ajolati den udal batek ezinbestean zaindu behar ditu berak argitaratzen dituen itzulpenak. Hizkuntza egoera aldatuz doan neurrian, itzultzaileen egitekoak eginkizun berrietara egokituz joan beharko du normalkuntzaren mesedetan.

Euskara udalgintzan errotzeko, udalaren eguneroko lanean normalkuntza sustatzeko, herri euskaldunenetan lana euskaraz bideratzen laguntzeko, udalbatzak onartutako hizkuntza politika bete arazteko, euskara zerbitzu baten beharra ikusten da. Egoera soziolinguistikoak, udalaren tamainak, udaletxe nahiz udalerrian euskara sendotzeko erabakiak, finkatutako hizkuntza politikaren premiak, erabakiko du euskara zerbitzuaren antolaketa.

Udalaren tamaina txikiak horretarako modurik ematen ez duela gogoan hartuz, agian eskualde mailako zerbitzuetara jo beharko litzateke zenbaitetan, (ikus 3.4. atala).

Udalbatzak finkatutako hizkuntza politika jarraitzea, koordinatzea eta ebaluaketarako datuak eskaintzea dagokio, batipat, euskara zerbitzuari.

## 6. GOMENDIO GISA

Udalgintzan zer ikusirik izan dezaketen kargudun guztiei, alkate eta zinegotziei, udaletako teknikari nahiz langileei, eta herrigintzan herritar bezala zer esana duten guztiei, Euskararen Aholku Batzordeak honako hau adierazi nahi die:

6.1. Udaletako hizkuntza normalkuntzari buruzko erizpideak aztertu eta horren arabera hizkuntza politika erabaki egin behar da. Honako txosten hau azterketa lanerako tresna bezala eskaintzen du Euskararen Aholku Batzordeak, abiapuntu bat baino ez denez, egokitua eta osatua izango den ustetan.

6.2. Hizkuntza politika herrigintza bideratzeko politika zabalagoan txertatu behar da eta euskalgintzan diharduten herriko taldeekin elkarlanean sustatu.

6.3. Euskararen normalkuntza guztion eginkizuna denez, komenigarria da alderdi politikoen artean ahalik eta adostasun zabal eta sendoena lortzea. Euskararen aldeko lanak ez dira agintealdi baten epeetara mugatzen. Alderdien arteko adostasunak agintealdi berrietan jarraipena behar du.

6.4. Udalgintzaren muinean, gestioaren arlo guztietan, izan behar da gogoan hizkuntzaren normalkuntzari eman beharreko trataera.

6.5. Udal hizkuntza politika udalaren neurrira, honen egoera sozio-linguistikora eta herrigintzaren premietara egokituko da.

6.6. Hizkuntza politika hau gauzatzeko udal handi eta erdi mailakoe-tan hizkuntza normalizazio zerbitzuak ahalik eta erizpiderik bateratue-narekin sor daitezela aholku ematen da. Udal txikien kasuan, 3.4. atalean adierazten den bezala, goragoko administrazioek hizkuntza normalizaziorako zerbitzu amankomunak sor ditzaten gomenda-tzen da.

6.7. Udaletako hizkuntza politikak euskararen erabilera bera, batez ere, hartu behar du gogoan. Eguneroko jardueran, zerbitzu nahiz lan hizkuntza izango dela ziurtatuz. Horretarako atal eta kate elebidune-tan euskara, ahoz nahiz idatziz, erabiliz.

6.8. Udalak, hizkuntzaren normalkuntzaren aldeko ahaleginean, he-rritarren erantzuna eragin behar du euskarazko jarduera areagotu de-zan.

6.9. Udalaren barne harremanetan, nahiz herritarrengana zuzendu-riko mezu eta dokumentuetan, euskaraz ematen den oro euskaraz pentsatu, sortu eta landua izatea gomendatzen da.

6.10. Ezinbestean itzulpengintzara jo behar denean, aurrez hartu behar dira itzuli beharrekoari buruzko erabakiak. Itzulpen onak, bes-teak beste, itzultzaileak gaia ezagutzea eta garaiz ibiltzea eskatzen du.

**EUSKO JAURLARITZA**

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA



**GOBIERNO VASCO**

CONSEJO ASESOR DEL EUSKERA